

## Txillardegiren aurrerabidea sustraietatik errealitatera

**ELSA** Schellen-ez gero beti izan dut gogoko Txillardegia idazlea. Are gehiago, gaur egun ditugun hizkuntzaren maisu bakanean artean seguruenetakoa dela uste dut, orain gutxi argitaratu duen 'Antigua 1900' ederrean frogatu berri duenez. Baina ezin dezaket beste horrenbeste esan Txillardegia filologoaz. Nire ustez bere gramatika txarra da, eta iruditzen zait 'Sustrai bila' edo 'Oinarri bila' ospetsuak, Altubaeren 'Erderismos' zorionekoak bezala, mesede gutxi eta kalterik asko ekarri diola euskara idatziari. Bi hitzetan esateko, Txillardegia filologoa, tamalez gure artean oraindik desagertu ez den ikerlari mota baten segizioa izan da: euskara hizkuntza bat baino «zerbait gehiago» dela uste dutenena, eta «euskara zaharrean», «hizkera kutsatu gabean», hots, esentzien munduan edo, ezkututzen den egiazko euskara hori atzematen saiatzen direna. Hizkuntzaren teologu hauen ikerlana, aldez aurretik ezagutzen duten emaitzaren aldeko frogak biltzean datza, eta hari kontra egiten dioten lekukotasunak arbuiazean: beti duzu eskumenean «erdararen eraginaren» argudioa horrela jokatzeke.

Baina urteak dira Txillardegia filologiaren arlotik baztertu eta soziolinguistikarenera bildu dela. Aldaketa guztiotzat onuragarria izan dela, Iruñean aurtengo UEU-ko atariko gisa ahozko euskararen batasunaz irakurri berri duen txostenean ikus daiteke, besteak beste. Ez da lehenbiziko aldia Txillardegia, lagunartean nahiz jendaurrean, gai honetaz mintzatu dela, eta niretzat bederen begien bistakoa da azken agerraldi honetan egin duen aurrerapausoa. Txostena benetan jakinagarria iruditu zait, eta bidenabarrezko gogoeta guztiz interesgarri bete. Lerro hauetan horietaz guztietaz nire iritzia ezin eman dudanez gero, azpimarragarrien iruditu zaizkidanen gainean gogotuko naiz.

Egia esan, txosteneko puntu badaezpadakoena Txillardegik nagusitatz hartzen duena iruditzen zait, hots, ahozko euskara batu bakar baten nahitaezkotasunaz diharduena. Trampa metodologiko bat dago hor: ados etor gaitzeko hizkuntzak batez ere edo ororen gainetik ahozkoak direla eta izan behar dutela egiaz biziko badira, baina ez da hortik nahitaez segitzen ahozko mailan erabat batuak egon behar dutenik. Mundua Espainia eta Frantzia baino zerbait gehiago dela kontuan hartzen duenak hori ikus dezake, are Katalunian bertan. Eta, baietz, baina gu oso gutxi garelako argudioa

dela eta, ez dut ikusten zertan izan gaitzekuen indartsuago denok beti berdin hitz eginez.

Honek guztiak ez du esan nahi, nire ustez ahozko euskarari buruz ezer gomendatu edo erabaki behar ez denik, ez hurrik eman ere. Hasieratik hasteko, denok bat bide gatzoz ez dela egoki 'zentru', esate baterako, espainolezko 'ce' edo batez ahoskatzea, lehenengoan Euskal Telebistan entzun nuen bezala. Ildo honetan bat nator, ezin batago esango nuke, Txillardegik bere txostenean mailegu berriei buruz egiten dituen gogoetekin. Gauza asko ari dira aldatzen gure artean zenbait topikori buruz, eta Jose Luisen txosten hau aldaketa horren eraginaren lekuko adierazgarria eta niretzat pozgarria gertatzen da. Badago hor zer aztertu,

**H**ONEK EZ DU ESAN NAHI  
NIRE USTEZ AHOZKO EUSKARARI BURUZ EZER GOMENDATU EDO ERABAKI BEHAR EZ DENIK, EZ HURRIK EMAN ERE.

baina Txillardegiren ikuspuntua abia-gune egokiena iruditzen zait berez nahasia den eta orain gure arteko zenbaitek nahasiagoa eta korapilatua gisa nahi luketen mailegu berrien mataza askatzen hasteko orduan.

Horago idaroki dudanez ahozko euskararen estandarrek lekuan lekuko eskalkiarene eragin nabarmena behar duela uste dutenetakoa naiz. Nolanahi ere, iruditzen zait badauela hainbat gauza eskalki kontua ez direlako estandar horretan ebakera bakarrekokoak izan behar dutenak: 'ez da' bezalakoan ahoskera bide da adibiderik arruntena. Puntu honetan arrisku nabari bat ikusten dut, *baserritarkeria* izenda daitekena. Txillardegik argi ikusten duenez, ahozko estandarrek hirietako ahoskeran oinarritu behar du. Baina hemen problema latz bat aurkitzen dugu. Azken hamarraldiotan hondamendi asko jasan ditu euskarak, baina bada bat ia inork kontuan hartzen ez duena: lehen, X hirian euskaldunak % 70 ziren eta orain % 30, baina kopuru murritzetaz gainera, lehenagoak bertako hiri

euskaraz mintzaten ziren hiztunak ziren eta oraingoak aldez inguruko herrixketatik heldutako baserritarrak, hizkera dialekto ahoskeraz askoz ere kutsatua-goa dutenak. Hori gertatu da Durangon, Bergaran, Gemikak, Tolosan (bidenabar, uste dut X. Kintana eta J.L. Lizundiak, honen ondorioez konturatu diren bakanetakoak, badutela zer esanik honi buruz). Horregatik, uste dut argi gutxi egin dezakeela, eta honetan ez nator Txillardegirekin bat, 'Erizkizundi irukoitzaren' edo antzekoen azterketak. Aldiz, iruditzen zait gure idazle zaharren grafien ikerketa, dialektuez gaineko (hots, dialektokeriarik gabeko) estandar hori taxuzeko aski baliagarria gerta daitekeela. Ikuspuntu honetatik, lau maila bereiz daitezkeela uste dut: a) argi dago 'eztago, etzetorren' e.a ebaki behar dela ahozko estandarrean, kontuan izanik 'ezeakaren' ebakera jatorra dela bizkaieraz, 'ez-ekarren'-en isla baita; b) ez dakit 'enaiz' eta kidekoak ez ote diren dialektozkotzat hartu behar; c) ez dut zalantzarik 'bapatean' e.a dialektalak direla, idazkerak ez ezik are ahoskerak ere; d) 'boskarren' eta ongi mugatzea zaila den horrelako beste zenbait, gorago aipatu dudan superreuskara metafisikokoak soilik dira, berezko hiztunengan inolako izaterik ez dutenak, eta hortaz erabat arbuia-garriak ahoz nahiz izkribuz.

Ezin utzizko puntu bat bukatzeko. Gomendioak ematea eta erabakiak hartzea alferrikakoa da ez badago atzean gomendio eta erabaki horiek betearazteko indar eragilerik. Eta ahozko estandarrean kontu honetan, begien bistakoa da zein den giltzarria: Euskal Irrati Telebista. Erakunde horren hainbeste urtetako utzikierazko jokaera ikusita, ulertzeko da alde horretatik inongo esperantzarik ez dutenen jarrera. Dena dela arazoa ez zait niri hain konpongaitez iruditzen, errua ez baita, alde batetik, erakunde horretako profesionalena, ez, bestetik, alderdi batena edo Eusko Jaur-laritzarena oro har, euskararen barne-normalizazioaz inongo sentiberatasunik agertu ez duen eta agertzen ez duen sail batena baizik. Ni bederen etsi-etsia nago EITB, Kultura Sailaren mendetik Hizkuntza Politikako Idazkaritzara (hau da, Lehendakaritza Sailera) igaroko balitz, aldaketa ikaragarria ikusiko genukeela, denbora gutxiaren buruan, komunikabide horretan erabiltzen den euskararen.

**IBON SARASOLA**  
EUSKALTZAINA

## BERRIAKZIRI



**JULIO ANGUITA**  
Iuko baleagile  
nagusia  
EL PAIS

«Eskola irakasle gisa erretiratuko naiz»



**FRANCOIS MITTERRAND**  
Frantziako Errepublikako lehendakaria  
SUD OUEST

«Alemaniako batasunak eta Europakoak batera joan behar dute»



**EMILIO MUGAÑENA**  
Futbolaria  
DIARIO DE NAVARRA

«Realaren aurka sartu nituen bi golek ez dute ezer esan nahi»



**NEREA AHEDO**  
Txupineroa  
EL CORREO ESPAÑOL

«Jai garbiak jai atseginagoak dira»

## ZAKILIXUT

© Olariaga



Agoztubaren amazpiyan zortzi ta erdiyak aldian neskatxa ori topo egin det Donostiya'ko kalian; iya nerekin konforme zegoen asi nazon galdian, baietz ta baietz erantzun ziran izketa eder batian.